



2012-02-16an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 16-02-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria.      Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko otsailaren hamaseian, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día dieciséis de febrero de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día..

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**



2012-01-19an egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

Akta onartzerakoan, Idazkariak jakinarazi du hemendik aurrera, galde-eskaeretan, zinegotzien parte hartzeak jasoko dituela nahiz eta beraiek berariaz horrela ez eskatu. Horretarako arrazoia da, bere ustez, horiek ez jasotzeak ohiko bilkuretan derrigorrez jaso beharreko puntu baten izarea ezerezean utziko lukeela.

Horren aurrean, Alkateak eskatu du galderak eta eskaerak ez izatea batzordetan aztertutako gaien buruz, bestela, esan duenez, osoko bilkura batzorde informatzailea bihurtuko litzateke, eta horrek ez du zentzurik.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2.1.- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko otsailaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Kreditu aldaketaren 1. espedienteari buruzko 27. erabakiari buruzko berri berariaz eman da. Ondoren transkribatzen da aldaketaren edukia zehazten duen proposamena:

### **EXP.ZKIA: 1**

#### **KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA**

##### **Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0301.481.313.60.01	Diru laguntza:Babesik gabeko egoerak	22.500,00	22.500,00	0,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	22.500,00	22.500,00	0,00

##### **Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0301.227.313.60.29	Zerbitzua:Babesik gabeko egoerak	0,00	22.500,00	22.500,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	0,00	22.500,00	22.500,00

\* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira



### **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hau sartzea:

*Eskoriatzako Ezkerra udal taldeak egindako eskaera.*

### **4.- ESKORIATZAKO EZKERRA UDAL TALDEAK EGINDAKO ESKAERA.**

Eskoriatzako Ezkerra taldeko bozeramaleak berak proposatuta, bere taldearen izena aldatu eta Ezker Anitza-Izquierda Unida izena jartzea baimentzeko eskaera mahai gainean gelditzen da. Merino jaunak esan duenez, eskaera behin-behinekoz kentzen du, bidezkoa den edo ez juridikoki aztertu arte.

### **5.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Alkateak azaldu du hiri lurren balio igoeraren gaineko zergako bi kitapeni baja emateko proposamena egiten duela, kasu bietan, basketxeak etxebizitzaz bahitu dielako zergadunei, maileguei aurre ezin izan dietelako egin.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta aurrez idazkariak legez kanpokoa dela ohartarazita, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Hiri lurren balio igoeraren gaineko zergaren ondorengo kitapenei baja ematea

(*)KONTZEP/E PEA/ZKIA	ZENBATEKOA (€)	ZERGATIA
090/201101/84	985,69	2012/02/07ko Hazienda Batzordea
090/201101/19	169,11	2012/02/07ko Hazienda Batzordea

### **6.- OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEA ESLEITZEA**

Olazar Jubilatuen Taberna-aretoaren ustiaketa esleitzeko irekitako expedientea aztertu da.

- Kontratazio honetako expedientea Udalbatzarraren erabakiz onartu zen 2008ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran.
- Kontratazio mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bileran, Jubilatu Etxeko taberna-aretoa ustiatzeko kontratua Juan Luis Eraña Altunari esleitzea proposatu zuen.
- Proposamen horretan interesdunari eskatzen zitzzion kontratazioa arautzen duten baldintza agirian jasotako dokumentazioa aurkeztea.
- Egindako eskaerari erantzunez, interesdunak aurkeztu du kontratua esleitzeko eskatutako dokumentazioa.



Aurrez esandakoan oinarrituz, eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

1.- Olazar Jubilatuen Taberna-aretoa ustiatzeko kontratuaren behin betiko esleipena Juan Luis Eraña Altuna jaunari egitea baldintza administratiboetako agiriaren, baldintza teknikoen eta esleipendunak bere eskaintzan egindako hobekuntzen arabera.

2.- Esleipendunari eskatzea erabaki hau jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita 10 egun baino lehen ondorengo dokumentuak aurkezteko udal gizarte zerbitzuetako langileei, dokumentu horiek aurkeztea ezinbestekoa baita kontratua 10 egunen barruan formalizatu ahal izateko.

- Kontratua burutzeko baliabideak jartzeko edo atxikitzeko konpromisorik hartu izan balu, kontratacio organoak eskatutako agiriak baliabide horiek benetan dituela ziurtatzeko, SPKLko 53.2 artikuluaren arabera (lan kontratuak...).
- Behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria (600 euro).
- Baldintza agiri honetan betebehar bezala eskatzen diren aseguru polizak egin eta ordaindu dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Elikagaiak erabiltzeko agiria. Agiria hori eduki ezean, hiru hilabeteko epea izango du Udalatxearen aurkezteko.
- Argindar, ur eta zabor ordainketak kobratzeko kontu zenbakia.

3.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordez sinatzeko.

4.- Erabakia interesdunei jakinaraztea.

5.- Lizitatzaireek jarritako behin-behineko bermeak itzultzea.

6.- Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean argitaratzea (kontratatzairearen profila).

7.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Beroren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekursoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean Donostiarra auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkotzat jo daitezkeen beste batzuez gain.

## **7.- ESKORIATZAKO PSE-EE TALDEAREN MOZIOA HAUR JAIO BERRIEN BIDEGABEKO JABETZA EDO ARAUZ KONTRAKO ADOPZIOEI BURUZKOA**

Hitza eman ondoren, Cantero jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

JUSTIFIKAZIOA



50. hamarkadatik 1990. urtera arte, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatu osoan irregularutasun administratiboak izan dira eta horiek haur jaio berrien bidegabeko jabetze edo adopzio irregulararen kasuak izan direla susmatzeko bidea ematen dute. Frankismoko diktadurako errepresio giroan familia askok pairatzen zuten pobrezia, analfabetismoa, informazio falta eta eskubide eza egoeraz aprobetxatu zirenak izan ziren.

Haurrak lapurtu eta saltzeko sareak antolatzeko frankismoko errepresioa aprobetxatu zuten pertsonek, geroago ere beraien aginte maila erabiltzen jarraitu zuten delitu horiek egiten jarraitzeko.

Dirudienez, umeen legez kanpoko trafikoan bide finko batzuk zeuden. Bata, Madril eta Valentzia lotzen zuena; eta beste batzuk, iparraldetik, EAETik eta Nafarroatik Valentziako eta Saguntoko ama-eskoletara. Euskadin dauden kaltetuen elkartea biek, SOS Bebés Robadosek eta Anadirrek, lapurtutako haur jaio berrien 400 kasutik gora zenbatu dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia ustez lapurtutako haurren 200 kasu tramitatzan ari da gaur egun, horietatik, 121 Gipuzkoakoak, 48 eta 64 bitartean Bizkaikoak, eta 31 Arabakoak. Spainiar Estatuan kaltetu gehien duen lurralteetako bat Gipuzkoa da.

SOS Bebés Robad@s eta Anadir elkarrekin euskal erakunde guztieta jo dute eta erakunde horiekin elkartu dira beraien egoera, kezkak eta eskaerak azaldu eta horien berri emateko.

Horrela, 2011ko irailean agertu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean, eta foro horretan, lapurtutako umeen kasuak ikertu eta salatzen laguntzeko erakunde publikoei egiten dizkieten eskaerak azaldu zituzten.

Elkarte horiek eta kaltetutakoek erakundeei eskatzen diente egia jakiteko eskubidea eta desagertutako senideen norakoaren berri izateko eskubidea bermatzea; hori bermatzea, tokiko, lurraldeko, autonomiako eta estatuko agintarien betebehar politikoa delako. Horregatik, PSE-EE udal taldeak ondorengo mozioa aurkezten du:

#### MOZIOA.

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Udala bat dator elkarrekin eta kaltetuek bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari egiten dioten eskariarekin: behar diren eta horien esku dauden neurri guztiak hartzea aipatutako elkarrekin eta kaltetu horiek duten egia-eskubidea bermatzeko.

**BIGARRENA.-** Eskoriatzako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta bereziki, Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabinete barruan sortutako Oroimen Historikoko Zuzendaritzari eskatzen dio elkarrekin eta kaltetu horiekin hitzarmen bat sinatzeko helburu hauekin: ekonomikoki laguntzea, dokumentazioa lortzen beraiekin elkarlanean aritzea, laguntza psikologikoa eta legezko ematea eta baita beste laguntza eta diru laguntza batzuk ere beraien ikerketa jarduerak eta salaketak egiteko.

**HIRUGARRENA.-** Eskoriatzako Udalak legebiltzarrei –Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Eusko Legebiltzarrari eta Diputatuen Kongresuari- Gipuzkoako Lurralde Historikoan lapurtutako haurren kasuak argitzeko ikerketa batzordea irekitzea eskatzen die.



LAUGARRENA.- Eskoriatzako Udalak, lapurtutako umeen sarearekin lotutako ospitale publiko eta pribatu guztiei eta Eliza Katolikoari -bereziki, Donostiako gotzainari-, eskatzen die elkarteei eta kaltetuei beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzen lagundu diezaietela, dokumentu horiek ikusi eta lortzea erraztuz .

BOSGARRENA.- Eskoriatzako Udalak Estatuko Fiskal Nagusiari eskatzen dio instrukzioa egitea agindu dezala, lapurtutako haurrekin lotutako salaketen gaineko prozesu judizialak irekitzea eta ikerketa erraztu eta bultzatzea aginduz fiskaltzei.

SEIGARRENA.- Eskoriatzako Udalak bere eskumenen barruan laguntha guzia emango die elkartea eta kaltetuei; eta, gainera, bere babes, elkartasuna eta maitasuna erakusten dizkie.

Mozioa irakurri ondoren eztabaidea izan da.

Ondoren Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuraren berak horrela egitea eskatu zuelako:

Garbi dago inolaz ere ezin dela mozio horren aurka egon. Baino, guk motibazioei buruz berba egin gura dugu. Guik ez dugu ulertzen zerk motibatzen duen alderdi sozialista mozio hau aurkezteria udaletxe guzietan, hil honen 2an alderdi guztiekin sinatuta mozio honek dioena eta are gehiago esaten duen Batzar Nagusietako erabaki proposamena dagoenean. Horregatik, proposamen horren kopia dakart, irakurri gura baduzue, eta nik uste dut, Batzar Nagusietan esan zen bezala, gai hori eremu politikotik kanpo gelditu beharko litzatekeela, eskandalu handirik egotekotan, gure ustez, hau baita. Orduan, zerk motibatzen du alderdi sozialista? Ba, ez dugu ulertzen; edo, beharbada, bai! Ez da kasualitatea urtarilaren 25ean, Noticias de Gipuzkoan, 8. orrialdean, honako hau argitaratzea: *SOS Bebés Robados se reúne con el PNV, Aralar y PP para impulsar la investigación. Busca recabar apoyo para continuar con las indagaciones y denuncia que todavía la única que no les ha recibido ha sido la portavoz del gobierno Vasco, Idoia Mendía.* Eta hemen, SOS Bebés Robados-eko bozeramalearen adierazpenak ere agertzen dira, eta honako hau dio: *Sabemos que el PSE no nos quiere ayudar, pero no sabemos porqué.* Hau guztiak alde batera lagata, nik proposatuko nuke Batzar Nagusietako erabaki proposamena onartzea, hemen esaten dena baino osatuagoa delako eta gehiago esaten duelako.

Cantero jaunaren hitzak direla-eta, Urrutia jaunak berriro esan du Batzar Nagusietako proposamena jartzen duela mahai gainean, berak esan duenez, bozkututako testua delako, aho batez talde guztiekin onartu dutena erakunde mailan eta ez dakiela zergatik PSOEk mailaz jaisten duen beste testu batekin, ez baldin bada gai horretan txapeldun agertzeko. Jakinarazi du erabat ados dagoela mozioarekin, baina, berriz ere diola badagoela Batzar Nagusietan testu bat talde guztiekin aho batez onartutakoa.

Eztabaidea amaituta, Alkateak erabaki du PSE-EEk aurkeztutako mozioa eta EAJ/PNVko bozeramaleak aurkeztutako Batzar Nagusietako erabaki proposamena bototara jartzea.

Ondoren transkribatzen da erabaki proposamena:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako udalei eskatzen diete lapurtutako haurrei eta adopcio irregularrei buruzko elkarteei dagokien lankidetza eta finantzaketa juridikoki artikulatzeko, arautua gera dadin euskal erakundeek eman behar duten laguntza, eta hasitako nahiz etorkizunean egin beharreko ekintzen jarraipena egin dadin, besteak beste:



- a. Dokumentazioa eskuratzen laguntena eta erraztasunak ematea.
  - b. Aholkularitza zein arreta juridiko-administratiboa eta psikologikoa.
  - c. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin hitzarmena izenpetzea, Eusko Jaurlari-tzaren Justizia Sailarekin elkarlanean, doako laguntena juridikoa emateko.
  - d. Maila ezberdineko erakundeek laguntena ekonomiko bat zehaztu behar dute, nahikoa izango dena kaltetutako pertsonen ikerketa-, antolaketa- eta salaketa-jarduerak mantentzea ahalbidetzeko.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek azterketa-batzorde bat sortuko dute hilabeteko gehienezko epean, Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernurako Batzordearen barruan, zeinaren helburua izango den lapurtutako haurrei eta adopcio irregularrei buruz salatutako egitateetako organo eskudunek eginiko argitzeko zein ikertzeko jardueren jarraipena egitea.
3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Diputatuen Kongresuko eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiari eta Bozeramaileen Batzordeari eskatzen diete 40 eta 90eko hamarkaden artean izandako lapurtutako haurren eta adopcio irregularren kasuak aztertu, ikertu eta jarraitzeko ikerketa-batzorde bat sortzea bultzatzeko, edo xede bera duen Araudiaren araberako beste fororen bat sortzea bultzatzeko.
4. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eskatzen diote Fraisoro haur abandonatuentzako etxeko erregistroen eta datu eskuragarrien eskaeren izapideak arintzeko, eta kaltetutako pertsona nahiz elkarteen esku jartzeko daukaten informazioa, beti ere, kaltetutako pertsonen esanbidezko baimena badute.
5. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako ospitale publikoei, ospitale pribatuei, ehorztxeei eta hilierriei eskatzen diete laguntzeko eta kaltetutako pertsona zein elkarteen esku jartzeko daukaten informazio guztia, beti ere, kaltetutako pertsonen esanbidezko baimena badute.
6. Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskumena duten erakundeei eskatzen diete datu nagusiak emateko kaltetutako pertsonei, datuak babesteko legearen interpretazio hertsirik egin gabe.
7. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Estatuko Fiskalta Nagusiari eskatzen diote lapurtutako haurren kasuetan sustatzeko eta errazteko kaltetutako pertsonen eginiko salaketen ikerketa, bai eta prozesu judizialen irekiera ere. Halaber, Fiskalta Nagusiari eskatzen diote debekatzeko kasu horien artxiboak orokorrean ixtea eta ikerketarako bide berriak uka-tzea.
8. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Espainiako gobernuaren Justizia Ministerioari eskatzen diote lapurtutako haurren eta adopcio irregularren kasuetan kaltetutako pertsonen arretarako protokoloa mantentzeko eta egokitzeko.
9. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Eliza katolikoko organo eskudunei eskatzen diete Fiskal-tzari, kaltetutako pertsonei eta elkarteei laguntzeko, jarduera-protokoloak ezartzen zentsuko erregistroen sarbidea eta erabilgarritasuna bermatzearen.
10. Gipuzkoako Batzar Nagusiek hedabideei eskatzen diete laguntzeko egitate horiek hedatzen, adoptatuak izan zirela uste duten eta jatorriari eta guraso biologikoei buruz zalantzak dituzten pertsona guztiak bidea izan dezaten kaltetutakoen elkarteen harremanean jartzeko.
11. Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eskatzen diete DNA frogak dituen datu-base handi bat egiteko, ikertutako kasuetako identifikazioak erraztearen.



12. Jaioberrien bidegabeko jabetzeen eta adopzio irregularren ondorioz kaltetutako pertsonei laguntzeko Gipuzkoako Batzar Nagusiek duten konpromiso irmoari eusten diote, eta adeitasun, elkartasun eta babesia adierazten diete.
13. Ahozko epaiketa irekiko balitz, Gipuzkoako Batzar Nagusiak akusazio partikular gisa pertsonatuko lirateke.

Testu bien gaineko bozketa eginda, mozioa zein erabaki proposamena onartu dira Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin eta bertaratuko gainerako udalbatzarkideen aldeko botoekin.

#### **8.- ESKORIATZAKO PRESOEN ALDEKO TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA GORKA AZPITARTE ETA ENEKO ZARRABEITIARI BURUZ.**

Hitza eman ondoren, Urzelai andreak ondoren transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

Gorka Azpitarte Rejado, Eskoriatzako euskal preso politikoa, 2011ko azaroaren 9an Osnyko espitetik Potiers-Vivonneko espoxera trasladatu zuten.

Bertara heldu zenean iritsi berrien moduluan 13 egunez eduki zuten, modulo horretarko egonaldia berez 7 egunetakoia izaten denean. Modulo horretan egon zen bitartean soinean zeraman arropa bakarrik zeukan, gainontzeko guztia miatzeko hartuta zegoelako (beste espoxe batetik dakartzan gauzak direla jakin arren). Horretaz gain modulo horretan ez dago inolako aktibitaterik egiterik.

2011ko abenduan gertatu zien bi gertaera zirela eta “raport” edo zigor txostena eman zieten bata berari, beste Eneko Zarrabeitia bere kideari. Txosten hauen arrazoia hauek izan ziren. Gorka, patioan zegoela, patioko hormaren beste aldean zegoen kide bat agurtzen saiatu zen oihuka. Bestetik Enekok, bisita batean, beste preso baten senideak agurtu zituen.

Bi ekintza hauek aitzakiatzat hartuta biei zigor bana ezarri zieten: Gorkak hilabetez ezin izango zuen kiroldegia erabili, eta Enekok bi hilabetez bisitak kristalaren atzetik bakarrik egin ahal izango zituen (Frantziako espoxeetan bisitetan ez da kristalik erabiltzen, normalean)

Hori dela eta, espoxe horretan euskal presoek bizi duten egoera zaila eta neurriz kanpoko zigor horiek salatzeko, Gorkak eta Eneko bere kideak urtarriaren 13an gose greba bati ekin zioten. Gose greba urtarriaren 16an bukatu zuten.

Horretaz gain, espoxe honetan bertan euskal preso politikoenganako zigorrak eta “mittardaldiak” (bakartzeak) etengabeak izaten ari dira.

Gertaera guzti hauak kontuan hartuz, Udalbatza honek hau erabaki du:

- 1.- Eskoriatzako Udalak, Potiers-Vivonne-ko espoxean gertatzen ari diren gertaeren jakitun izanda, bertan Gorka Azpitarte Rejado eskoriatzarra eta bere kideak jasaten ari diren etengabeako zigorrak neurrigabeak direla adierazten du, eta euskal preso politikoen bizi-baldintza duinak errespetatuak izan daitezen eskatzen du.

- 2.- Eskoriatzako Udalak Poitiers-Vivonne-ko espoxeko zuzendaritzari bilkura honetan onartutakoaren berri emango dio eskutiz baten bidez, modu horretan Gorka Azpitarte Rejado eta bere kideen bizi-baldintzen inguruko bere kezka azalduz eta bizi-baldintza duinak exijituz.



Eztabaidan zehar, eta Cantero jaunaren parte hartze dela-eta, Gorka Azpitarteren aita Txomin Azpitarteri, hitza eman zaio, eta honek berretsi egin du udalbatzarraren aurrean Gorka Azpitartek eta bere kideek jasaten duten egoera mozioan esaten dena dela.

Merino jaunaren parte hartza dela-eta, non adierazi duen bere taldea ados dagoela 2. puntuarekin, baina, ez 1.arekin, ez bazaio zenbait aldaketa egiten, Iraitz Zuazabeitia andreak, "Eskoriatzako Presoen Aldeko Taldeko ordezkarriak, hartu du hitza. Berak ordezkatzen duen taldearen izenean adierazi du berretsi egiten duela mozioaren testu osoa eta eskatzen du ez aldatzeko mozioa Merino jaunak eskatutako moduan.

Horren aurrean, Alkateak bototara jarri du mozioa puntuz puntu. Emaitza honako hau izan da:

Lehenengo puntu onartu da, emaitza honekin: Cantero jaunak aurka bozkatu du, Merino jauna, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna abstenitu egin dira, eta, gainerako 7 zinegotziek alde bozkatu dute.

Bigarren puntu ere onartu da emaitza honekin: Cantero jaunak aurka bozkatu du, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna abstenitu egin dira, eta gainerako 8 zinegotziek alde bozkatu dute.

Ondoren transkribatzen da Urrutia jaunaren boto azalpena, berak horrela egitea eskatu zuelako 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran:

Ez dakit gaur politikoki zuzena ez izateko eguna dudan edo zer. Uste dut beste behin, 2003an edo 2004an, komunikabideetan oihartzun handia izan zuen oso antzeko mozioa aurkeztu zela. Uste dut oso antzeko zela, orduan alde bozkatu genuen, eta, nik, gaur, alde bozkatuko dut. Eta, gainera, gauza bat esan behar dut politika guztien gainetik dagoena, nahiz eta erori beharreko zaparrada guztiak erori: nik, Txomin, sinisten dizut (Gorka Azpitarteren aitari zuzenduta). Eta zuri sinisten dizudalako, zaparradak zaparrada, mozio honen alde bozkatuko dut.

#### **9.- EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ESKORIATZAKO UDALEAN LIBERATUTAKO KARGU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN MAILARI BURUZ.**

Hitza eman ondoren, Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

2011ko uztailaren 20ko ohiko osoko bilkuran, hau da, agintaldi honetako hasieran, BILDUREn proposamenez –gogoratu behar da gehiengo osoa duela-, aho batez onartu zen Alkatearen ordainsari erregimena UDALHITZeko (langile publikoen hitzarmena) 25. mailan finkatzea, % 100aren dedikazioarekin 2011ko abuztuaren 31tik aurrera.

Ondoren, 2011ko irailaren 21eko osoko bilkuran, dedikazioaren ehunekoa aldatzea onartu zen: % 80 alkatearentzat eta % 20 hauteskune-koalizio bereko zinegotzi batentzat, UDALHITZeko 25. ordainsari mailarekin.

Udal gobernu talde honek 2012. urterako aurrekontu projektuaren zirriborroa eman zigunean konturatutu ginen, eurotan ikusirik, eta, ez, ordainsari mailan, zer suposatzen zuen aurreko agintaldiarekiko maila igoera horrek, **% 33,99a**, alajaina!



**2011-2015 AGINTALDIA, % 80 liberatua, Udalhitzeko 25. maila - 41.642 €  
% 20 liberatua, Udalhitzeko 25. maila – 10.410 €**

Hau da, gastua 38.846 €-tik 52.052 €-ra igo da, Udaldiruzaintzarako 13.206 €-ko gainkostuarekin aurreko urtearekiko.

Nazioarteko finantza sitemak sortutako egungo krisi ekonomiko larriak agerian utzi du sistema kapitalistaren muga gabeko diru-gosea, eta berdintasun eta justizia sozial baldintzetan jendearentzako ongizate estatua bermatzeko gai izango den sistema alternatibo bat bilatzeko beharra.

Egoera zail honetan, bereziki kaltegarriak izaten ari dira Udaletan zero defizita lortzena zuzendutako austerritate neurriak, Udalak baitira herritarrentzako zerbitzu gertuenetakoak garatzeko arduradunak; eta lehen aldiz historian, Udal asko kaleratze kolektiboak egitera behartuta egon daitezke. Ezin da onartu udalak izatea -zorpetze publikoaren % 5a bakarrik dutenak bere gain- gastu publikoan egindako murrizketen biktima nagusiak.

Gure udalean, aurtengo gastuetarako aurrekontua % 18,39 murriztu da 2011ko ekitaldiarekiko, diru laguntzetarako zein gure herritarrentzako ekintzetarako partida asko murriztu edo kendu dira, ordainsari osagarriak murriztu behar zaizkie zenbait udal langileri eta abar; eta, bestalde, liberatuen ordainsariak % 33,99 igo dira aurreko ekitaldiarekiko. Egoera hori bereziki ulergaitza da bere burua ezkerrekotzat duen alderdi politiko batentzat.

Bi liberatuen asmo ekonomikoek sortutako egoeraren aurrean -bidezkoak izango direnak, bai; baina, dirukutxa publikoek ezin dute jasan urteko 13.206 €-kogainkostua, hori onartuko balitz, hemendik aurrerako agintaldietarako aurrekaria litzatekeelako, eta ez genuke jakingo zer nolako ondorioak ekarriko ligukeen-, karga ekonomiko horiei irtenbide bat emateko konponbidea litzateke 17. mailatik 25.era arteko gainkostu hori liberatu biek ordezkatzen duten talde politikoak, hau da, BILDUk, hartzea bere gain.

Aurrez esandako guztiarengatik, EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDA taldeak ondorengo mozio hau aurkezten du:

**MOZIOA**

**1- Kargu publiko liberatuen ordainsari mailak berriz ere UDALHITZeko 17. mailan jartzea, maila logiko bat delako gure udalerako biztanleria, aurrekontua eta abarkontuan izanik.**

**2- Mozio honen bozketaren eta edukiaren berri ematea udal web gunean eta ohiko komunikabide idatzietan.**

Mozioa irakurri eta gero izan den eztabaidan udal talde bakoitzeko ordezkariek parte hartu dute.

Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuraren berak horrela egitea eskatu zuelako:

Hemen esan diren gauza batzuk komentatu nahiko nituzke. Hasi aurretik, esan gura dut guk mozioaren alde egingo dugula, erabat ados gaudelako bertan esaten denarekin. Eta, gainera, uste dut mozioa hasieran ematen zuena baino leunagoa dela. Nik, eztabaidatzeko mahaigainera ekartzea nahiko nukeen lehenengo gaia irizpideena da. Irizpidea “*nik lehengo lanean beste kobratu gura dut*” da. Nik uste dut lan berri batera zoazenean leku horretan kobratzen dena



kobratuko duzula, eta, ez, nahi duzuna. Hori lehen irizpide bezala. Nik ez daukat inolako asmorik zuk erosahalmena galtzeko, ezta gutxiago ere! Bainan, zenbakiak zenbaki dira. Zer nahi duzu aitortzea? Gola sartu zenigula ekainean ez genuelako jakin ikusten 38.000tik 52.000ra pasatzen zela? Tira, ba, bale! Ez genekiela zein zen 17 eta 25 arteko diferentzia? Ba, bueno. Eta, hori, zer da? Erantzukizun falta? Ba, ez, hori gehiago konfiantza da edo ez dakit zer esan... baina konfiantza falta ez da. Hori horrela izan zen kopuruak ez genituelako izan mahai gainean, informazioa ez zen zenbakitan eman, informazioa ordainsari mailatan eman zen. Gero zuek egiten duzuen diskurtsoa dago, eta ikusi den bezala, publikoak txaloka, komentarioak eginez eta barrezka hartu duena. Ba, azken finean, betikoa da: zer egin dute aurrekoek? Zer esan dute aurrekoek? Aurrekoek ez dakit zer... Ez. Orain zuek zaudete, eta zer egiten ari zarete? *17. maila baino gehiago merezi dudala...*, ba, beharbada, bai, beharbada 35a ere merezi duzu. Bainan, hemen eztabaidatzen dena ez da merezi dena edo zure ustez merezi duzuna. Enpresa batera iristen zarenean, zer irabazten duzu? Zure ustez merezi duzuna edo han irabazten dena? Guk uste dugu 17tik 25era arteko saltoa handiegia dela eta kopurutan karga bat dela. “*Nik abenduan kobratzen nuena kobratzen dut*”, jakina! Erabakia ekainean onartu zelako. “*Zergatik ez diozue alegaziorik jarri aurrekontuei?*” Ba, aurkeztu edo ez, eztabaida hau berdina izango litzateke. Eta koherentzia gorde gura duzue? Horrek zer esan gura du? Hurrengo hauteskundeetan berriz ere zuek irabazten baldin baduzue, eta hona gutxiago irabazte duen bat etorri, soldata murriztu behar zaiola? 25etik 17ra edo 15era edo 22ra edo 21era? Hori ikusteko dago! Ikusteko dagoen benetako berritasuna litzateke. Kasualitatea da, ba, nik berba egiten dudanean publikotik korua egotea (publikoak egindako komentarioez ari da). Uste dut Alkatea gai dela bere burua defendatzeko bere amak publikotik defendatu behar izan gabe. Eta, *guk gure alderdiari gu liberatzea eskatzeko?* Ez litzateke gaizki egongo emango baligute. Gauza bat eskatzea da, eta, beste bat, ematea.

Eta, *informazioa egunkarietan nola eman den horri dagokionez*, ba, nik, egunkarietan esan dudana aurrekontuak eztabaidatu zirenean hemen esan zena da, hitzez hitz. *Lana oztopatzen dugula?* Zer lan ari gara oztopatzen? Bat ere ez! Bestela, oso gutxirekin oztopatzen da zuen lana. Nik, nahiz eta galdera erretorikoa izan, erantzuna baduen galdera bat egingo nuke: zer gertatuko litzateke hau PNVko gobernu talde bat egin izan balu?

**Madinabeitia jaunak pleno aretoa utzi du 20:00etan**

#### **10. 10.- BILDUREN MOZIOA KUTXABANKI BURUZ.**

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

**Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluko erabakien aurrean, zeinetan Kutxabank entitate berrirako ordezkaritza berria erabaki den eta bertan Gipuzkoako Kutzaren ordezkaritza eta, hortaz, gipuzkoar guztiona izugarri murriztu den, Udal Talde honek jarraian datorren MOZIOA aurkezten du, dagokion eztabaida eta onarpenerako:**

**1.- Gure erabateko gaitzespena adierazi nahi dugu hartutako erabaki horien aurrean, zeinaren ondorioz Kutxabank-aren Administrazio Kontseilua soilik bi indar politikoren esku geratuko den, gainontzeko alderdi politikoak kanpoan utziz eta, ondorioz, erabaki hori hartu dutenek Kutxabank entitate berriaren kontrol esklusiboa eta baztertzailea izango duten.**



**2.- Kutxabank sortzeko lortutako kontsentsua mantendu dadin eskatzen dugu, zeina hiru aurrezki-kutxen Batzar Orokorek onartu eta bultzatu zuten, bertan euskal jendartearen eta bere erakundeen ordezkaritza plural, ordezkatzale eta proportzionala aitortzen zen, Kutxabank jendartearen eta Herriaren mesedetan lan egingo duen entitate gisa jardunez.**

**3.- Kutxabank entitate berrian Kuxari dagokion ordezkaritza onartzea eskatzen dugu, hain zuzen pasa den irailean burututako Kutxen Batzarretan adostutako eta aprobatutako parametroetan, eta, hortaz, ez dadin onartu Kutxa bera, zein Gipuzkoa eta gipuzkoarrok, kaltetuko lituzkeen ordezkaritza horren murriztapenik.**

Mozioa irakurri ondoren, udal taldeetako bozeramaleek hartu dute hitza.

Ondoren Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako:

Lehenengo parte hartzea:

Euskadiko 3 kutxek KUTXABANKeko administrazio kontseilua 15 kiderekin eratzea erabaki zuten 2011ko abenduaren 30ean. Onartutako arauak betez, helburua Kutxabank martxan jartzea zen, eta bileraren xedea erabakiak hartu behar zuten presidente eta kontseilua, ahalik eta adostasun handienarekin, izendatzea izan zen. Eta, indarrez eutsitako irizpidea, estatuko kaudimen eta eraginkortasun maila handieneko banketxea izaten hastea da. Azken urte hauetan aldaketa sakonak gertatu dira, eta gertatzen ari dira, finantza arloan. Gero eta arazo handiagoak daude dirua lortzeko handizkako merkatuetan. Kuxak izateagatik arazoak dituzte beraien errekurtoak handitzeko, negozio arruntetan merkeenak gero eta txikiagoak dira, eta marjina gutxiagorekin errentagarritasun txikiagoa lortzen da. Aldiz, kutxek betebeharreko arauak gero eta estuagoak dira, eta Europako Batasunetik zein Espainiako Bankutik datozen irizpideak bide beretik doaz: kutxei, beraien jarduera finantziarioa bankuetakoekin bat egitera behartzen zaie. Bestalde, gure erakundearen nahia izan da, duela urte askotik, kuxak elkartzea, horrela, gizarte ekintza bermatu eta indartzeko, eta garapen sozial eta ekonomikoaren lagungarri izan dadin. Horrela, eta nahiz eta aurreko bi saioetan ez lortu kutxak bateratzea alderdi politikoek alderdikeriaz jokatu zutelako, 2011ko irailean aurrera atera zen bateratzea kutxetako batzarrak osatzen dituzten taldeen gehiengo zabal eta esanguratsuarekin. Hartutako erabakia betez, beharrezko zen KUTXABANK martxan jartzea 2012ko urtarrilaren 1ean, administrazio kontseilua izendatuz. Eta izendapena KUTXABANKeko kideen gehiengoak onartutako arauak aplikatz egin zen. Hala ere, kontuan izanik etorkizun hurbilean KUTXABANKek hartu beharko dituen erabakiak, eta baita erakunde berria indartzeko ere, beharrezko da kutxetako batzarrak osatzen dituzten taldeek alde batera uztea alderdikeriak eta elkarrizketak berriz hastea. Hori horrela izanik, Udalbatzar honi eskatzen diogu administrazio kontseiluaren izendapena onar dezala, KUTXABANK proiektua gauzatzeko beharrezko tresna baita. Bereziki azpimarratu gura da administrazio kontseilu hori osatzen duten pertsonen profesionaltasuna, izan ere, orain arte izan ez den bezala, profesionaltasun hori da KUTXABANKen kaudimena eta errentagarritasuna bermatzen duena. Eta, hirugarrena, dei bat egitea KUTXABANKeko administrazio kontseilutik kanpo gelditu diren taldeei, alderdikeriak alde batera utziz, Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialarentzat beharrezkoa den proiektu honetara hurbil daitezen.

Bigarren parte hartzea:



Nik uste dut hemen norbaitek ahaleginak egin baldin baditu kutxa guztiak batzeko, eta uste dut egin dituenak handiak izan direla, hori gure alderdia izan dela. Oraindik gogoratzen dut nola batzuk topa egin zuten bi kutxen fusioa lortu ez zenean, eta beste batzuk argudiatzen zuten bateratzea hegoaldeko kutxa guztienetan izan behar zela. Kasualitatea ere bada: boterera iritsi eta kutxa guztien bateratzea erraz alboratzen da gizarte ekintza mantentzen bada. Ezker abertzaleak fusioaren baldintzak onartu zituen, Gipuzkoako Kutxaren ordezkaritza eta partizipazioa zenbakiek ematen ziotena baino handiagoa da; BBK da alde horretatik hain ondo atera ez dena, handiagoa da Gipuzkoako Kutxaren pisua matematika eragiketa hotz baten arabera legokiokeena baino. Ezker abertzaleak baldintzak onartu zituen eta orain ez du Kutxako kontseiluan egotek nahi. Bere erabakia da, baina, garrantzitsua da argi gelditzea ez dutela nahi izan, eta bere erantzukizuna da, politika egiteko bere modua: edo nirekin edo nire aurka; benetan ordezkatzen duena baino gehiago ordezkatzen duela erakutsi nahia. Orduan, bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu, eta gu, geunden lekuaren gaude, eta argi dagoena da administrazio kontseilu hori pertsona profesionalen osatzen dutela eta ahalik eta zabalena izan beharko litzatekeela. Horrela ez bada ez da gu horretarako prest ez gaudelako; ez dut uste gure erantzukizunengatik izango denik.

Eztabaida amaituta mozioa bozkatu eta onartu da emaitza honekin: 2 boto aurka (Urrutia jauna eta Merino jauna), Akizu jaunaren abstentzia, eta bertaratutako gainerako zinegotziek, alde (7)

## **11.- BILDUREN MOZIOA SEKTORE PUBLIKOAREN ERREFORMARI BURUZ.**

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

Duela egun batzuk espainiar gobernuaren arduradun zenbaiten ahotik, sektore publikoan gauzatuko den politikaren ildo nagusiak entzun genituen.

Horrela, sektore publikoaren erreformara bideratutako neurri zenbaiten artean, zein baino zein murritzaleagoak, Berrezarpen Tasaren izoztea iragarri zen. Horrek, udalean jubilatuko den funtzionarioen ororen plazarik ez betetzea inposatu nahi du. Honi Enplegu Publikoaren Eskaintza izoztuta dagoela gehitzen badiogu, ondorioak oso larriak izan daitezke.

Aurrezpen neurri bezala zabaldu denak, lehen golpean ikusi daitezkeenak baino eragin askoz ere garrantzitsuagoak izango ditu. Lehenik eta behin, epe erdira begira eta udal langileak jubilatzen doazen heinean, udalek eman beharreko zerbitzuak emateko adina langile ez dutela izango esan nahi du. Ondorioz, zerbitzuen kalitatearen merma okertze bat eratorriko da udaletara, baita gure honetara ere. Era berean, langile publikoen lan baldintzen okertzea suposatuko du.

Aurretik adierazitakoa bezalako neurrien bigarren ondorio nagusia, zerbitzu publikoak pribatizatu behar direla defendatzen dutenei atea irekitzea da. Hau da, zerbitzu publikoaren liberalizazio osoa defendatzen dutenei mesede egitea. Honen guztienetan ondorio zuzena, urte luzeen ondorioz guztiontzat ziren zerbitzuak, dirua duten gutxi batzuk soilik izatea da. Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, ESKORIATZA-ko Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du eztabaideatu eta onartu dadin:

1.- Udal honek, Espainiako Gobernuaren presidente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzen ditu. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtziopenera berrezarpenaren debekuaz, udal honek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kaltetzen duelako.



2.- Udal honek, geroz eta premiazkoagoa den Ongizate Estatuaren defentsan konsentsua mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertueneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.

3.- Madrilen onartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, Bilduk, euskal gizarteari dei egiten dio, mobilizatu eta kalitatezko eta herritarrengandik gertueneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, Akizu jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako zinegotzien aldeko botoekin, mozioa ONARTU du.

*“Galde-eskeak” puntua hasi baino lehen, eta AJAko 91. artikuluak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, Alkate jaunak Udalbatzarraren pean jarri du Lodosako Ibaialde Ikastolari diru laguntza ematea gai zerrrendan sartzea premiazko den edo ez erabakitzea. Jakinarazi duenez, eskaera Arizmendi ikastolak egin du eta bere helburua Lodosako Ikastolari diru laguntza ematea da, egoera ekonomiko larrian baitago, izan ere, zonalde ez euskaldunean egoteagatik murriztu egin dizkiote administrazioak jasotzen zituen diru laguntzak. Eskoriatzako ikastetxeetan ikasten ari diren ikasle bakoitzeko 1 € ematea eskatzen zaio Udalari, hau da, 584 €. Kredituari dagokionez, esaten du, badagoela kontsignazio bat diru laguntza emateko, euskarako diru laguntzen partidaren kargura egingo litzateke. Hala ere, eta horrela jakinarazi du idazkariak, esan du diru laguntza emateko prozedura ez dela bidezkoa zuzenbide aldetik, eta horregatik ekartzen duela Udalbatzarrera, guzton babesia izateko.*

*Premiazkotasuna justifikatu ondoren, Udalbatzarrak, Canto jaunak aurka emandako botoarekin, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek, legezko gehiengo absolutoaren quoruma osatzen dutenak, alde emando botoekin, gaia aztertzea ERABAKI DU.*

## **12.- LODOSAKO IBAIALDE IKASTOLARI DIRU LAGUNTZA EMATEA**

Idazkariak egindako ohartarazpenaren jakitun, eta Canto jaunak aurka emandako botoarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiekin alde emandako botoekin, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

**Lehenengoa:** Lodosako Ibaialde ikastolari 584 €-ko diru laguntza ematea duen egoera ekonomiko larria gainditzeko laguntza bezala.

**Bigarrena:** Gastua onartzea eta berehala ordaintzeko agintza, indarrean dagoen aurrekontuko 0402.481.455.10.01 partidaren kontura.

## **13.- GALDERAK ETA ESKARIAK.**

Merino jauna. Hasiera batean ez neukan inolako galdera edo eskaerarik, baina, batzorde informatzaileetan aztertzen diren gauzak ez galdeztzeaz esan duzunari buruz, esan behar dut ez nagoela ados. Guk, Ezker Batua bezala, herritarrek kalean galdetzen diguten edo herritarren interesa duten gaineko gauzak planteatzen jarraituko dugu, besterik gabe.

Alkateak erantzun dio berak esan nahi zuena dela gai bat batzorde batean jorratu bada edo jorratu behar bada, informazioa foro horretan emango dela, ez emango ez denik. Adibidetzat



jarri du “atez ateko bilketa zerbitzua”; esan duen bezala, informazio asko ematea eskatzen duen gaia da, eta uste du horretarako foro egokiena batzorde informatzailea dela.

Merino jaunak berriro esan du ez dagoela ados, eta herriaren intereseko gauzei buruzko galderak egiten jarraituko duela Ezker Batuak, uste baitute hau dela foro egokiena; beste kontu bat izango da, esan du, jasotako erantzuna.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura arratsaldeko zortziak eta erdietan.  
Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**



2012-02-16an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 16-02-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko otsailaren hamaseian, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día dieciséis de febrero de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día..



## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión de fecha 19-01-2012.

Con motivo de la aprobación del acta, la Secretaría informa que en el futuro hará constar en el punto de ruegos y preguntas la intervención de los concejales a pesar de que no lo soliciten de forma expresa; y ello porque, a su entender, el no hacer constar desvirtúa la naturaleza de un punto de inclusión obligatoria en las sesiones ordinarias.

Ante ello, el Alcalde solicita que los ruegos y preguntas que se cursen no versen sobre cuestiones que se informan en las comisiones porque, dice, lo demás este pleno se convertirá en una comisión informativa y eso no tiene sentido.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

### **2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 13 de febrero de 2012 haciendo entrega de una copia del extracto de las mismas.

Sobre la Resolución Nº 27, relativa al expediente de modificación de créditos Nº 1, se da cuenta expresa. A continuación se transcribe la propuesta en la que se detalla el contenido de la modificación:

**Nº ESP.: 1**

### **PROPIUESTA DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS**

#### **Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)**

<b>Partida</b>	<b>Denominación</b>	<b>Crédito inicial</b>	<b>Reducción</b>	<b>Crédito final</b>
0301.481.313.60.01	Subvención: situaciones de desprotección	22.500,00	22.500,00	0,00
	<b>TOTAL ...</b>	22.500,00	22.500,00	0,00

#### **Partidas de gasto: créditos que se quieren añadir (altas)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Denominación</b>	<b>Crédito inicial</b>	<b>Aumento</b>	<b>Crédito final</b>
0301.227.313.60.29	Servicio: situaciones de desprotección	0,00	22.500,00	22.500,00



<b>TOTAL ...</b>	0,00	22.500,00	22.500,00
------------------	------	-----------	-----------

\* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias.

### **3.- RATIFICACIÓN SOBRE INCLUSIÓN DE ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del siguiente asunto dentro del orden del día:

*Solicitud cursada por el grupo municipal Eskoriatzako Ezkerra.*

### **4.- SOLICITUD CURSADA POR EL GRUPO MUNICIPAL ESKORIATZAKO EZKERRA.**

A propuesta del propio portavoz del grupo Eskoriatzako Ezkerra, queda sobre la mesa la solicitud cursada y consistente se autorice el cambio de nombre de su grupo por el de Ezker Anitza- Izquierda Unida. Según palabras del Sr. Merino la solicitud se retira provisionalmente y hasta que se analice jurídicamente la procedencia o no de la misma.

### **5.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS EN EJERCICIOS ANTERIORES.**

